

# Hondarribiko mintegi oparoa

1982a ezkerotik, 78.000 sagar-landare saldu dira Diputazioak herri hartan duen mintegitik

FELIX IBARGUTXI

**S**AGARDOTARAKO sagar-landareak nahi dituztenek izena eman dezakete jadanik Diputazioak Hondarribian duen Zubieta izeneko etxean. Sagarmotei dagokienez, ez dago aldaketa handirik lehengo urtetik hona: hori bai, aurten saltxipi eta txurten luze motako sagarrondoak ingura litezke. Patroi klonalen aldetik, berriz, badago aldaketa nabarmenik: aurten ez da salgai jarriko M 25 motako patroiklonalik, Zubieta sailetan emaitza ez oso onak izan dituelako, eta beronen ordez MM 106 deritzana ipini dute.

Beti bezala, patroiklonalean txertatutako arbolak ere eros daitezke. Lehengo erako arbolak dira hauek. Hazitik datoz, haundiak egiten dira eta patroiklonalean txertatuak baino askoz gehiago irauten dute. Horrelako arbolek badute beren alde txarra ere: beranduago hasten dira frutu ematen.

*Partikularren mintegietan erositako sagar-landareek ere edukitzen dute dirulaguntza, baldin eta fakturan nolako txertoa egin den zehazten bada*



Hondarribiko Zubieta etxean, mintegia ez ezik badago sagasti handi bat ere. ALUSA

Patroi klonalak, berriz, Britainia Handian sortutako arbola motak dira. Berauetan txertatutako arbolak txikiagoak dira, azkarago hasten dira frutu ematen, baina hogeita bostgarren urtetik aurrera apenas ematen dute sagarrak, jeneralean. Gaurregun, baserritar gehienek horrelakoak izaten dituzte nahiago.

1982an hasi zen Diputazioa Zubieta etxeko plangintzarekin, konturatuta landarazaleek ez zutela behar hainbateko kantitateterik eta kalitateterik eskaintzen. Lehenengo urte hartan 1.358 landare saldu ziren Hondarribiko mintegi hartan. Hurrengo urtean, berriz, 8.486. Harrezkero, urtero-urtero 6.000-7.000 landare saldu izan dira. Iazkoan, 8.700. 1982tik hona 78.000 arbola saldu ditu Hondarribiko mintegi honek.

Aldameneko koadroan ikus daitekeen bezala, sagar motak hiru taldetan banatuak daude, zapora aldetik: garratzak; mikatzak eta gazi-gozoek; eta gozoek eta gezak. Sagardoa behar bezalakoa egin ahal izateko, bi hiruti behar dira lehenengo bi sail horietatik, eta beste hiruti bat gozo eta gezetatik.

Bestetik, aspalditik jarria du martxan Diputazioak sagardotarako sagarrondoak subentzionatzeko plangintza. Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, chun arbola eduki behar dira gutxienez eta batetik bestera tarte jakin bat utziz. Diputazioak bere teknikoak bidaltzen ditu, sagarrondo-aldaketa eta ondorengo zaintze lanak behar bezala egin direla ziurtatzeko.

Partikularren mintegietan erositako landareek ere eduki dezakete beren subentzizioa, baldin eta erositako landareak sagardotarako egokiak badira eta fakturan azaltzen bada zein patroitan dagoen egina txertoa. Mintegiak inskribatua egon beharko du Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Mintegi Landareen Saltzaileen Erregistro Orokorrean.

Edozein modutan ere, frutazaleen elkarrean (Fruitel) izena ematen dutenek dirulaguntza gehiago izango dute.

Landare bakoitza bostehun pezeta kostatzen da. Ze motak nahi diren adieraziz, Zubieta landetxera deitu behar da, bi telefono hauetara: 612025 eta 611751. Eta ondoren, dirua sartu Kutzako kontu honetan: 316385-4. Landareak jasotzea, berriz, Gabonak pasata egin daiteke.

**1994-95 KANPAINARAKO HONDARRIBIKO ZUBIETA ETXALDEAN ESKURA DAITEZKEEN SAGAR-LANDARE MOTEN ZERRENDA**

ZAPOREA	PATROI FRANKOAN TXERTATUAK	PATROI KLONALEAN TXERTATUAK		
		EM 7	MM 106	MM 111
Garratzak	Geza Miña	Geza Miña	Geza Miña	Geza Miña
	Goikoetxea	Goikoetxea	Goikoetxea	Goikoetxea
	Errezila	Errezila	Errezila	Errezila
	Frantzesia	Frantzesia	Frantzesia	Txalaka
	Haritza	Haritza	Haritza	Udare marroia
	Manntonia	Manntonia	Manntonia	Urtebi haundia
Mikatzak eta gazi gozoek	Txalaka	Saltxipi	Mendiola	Berde gazia
	Udare marroia	Txalaka	Txalaka	
	Urdin	Udare zuria	Txurten luze	
	Urtebi haundia	Udare marroia	Udare zuria	
	Urtebi bikia	Urdina	Udare marroia	
	Berde gazia	Urtebi haundia	Urdina	
		Urtebi bikia	Urtebi haundia	
		Berde gazia	Urtebi bikia	
			Berde gazia	
Gozoek eta gezak	Mozolua	Mokotea	Mokotea	Mozolua
	Patzulua	Mozolua	Mozolua	
		Patzulua	Patzulua	

**ZOROTXO**

